2008-IX-12
Número **251.** zenbakia

ELA
EUSKAL SINDIKATUA
www.ela-sindikatua.org

astekaria

# EDITORIALA

## Berri gutxi

**Beste ikasturtea hasi berri dugun honetan, datozen hilabeteetan ezusteko handiegirik ez dugula izango aurrera dezakegu, okerrik handia ez bada behintzat. Testuinguru politikoari erreparatuz, egutegia eta gaiordena nahiko finkaturik dago.**

**Besteak beste, jakin bagenekien kontsulta ez zela gauzatuko, eta konstituzio-auzitegiaren epaia izan eta gero zalantza izpirik ez dago; auzitegi gorenak aurki erabakiko du EHAK eta EAE-ren ilegalizazioaz eta uste sendoa dago legez kanpo geratuko direla, erabaki horrek datozen hauteskundeetan izan ditzakeen ondorioekin; tartean dugu lehendakariari- eta beste buruzagi politikoei- epaiketa, hain zuzen Batasunako militanteekin biltzeagatik; oraintxe bete da Lizarra-Garaziko adierazpenaren hamargarren urteurrena; aurrekontuen negoziaketa hasia da, bai Madrilen eta Euskal Herrian, hedabideetako liskar politikoak aparte sakoneko gaietan adostasuna lortzeko malgutasuna zabala erakutsiaz... Datorren urteko martxoko hauteskundeak denon ikusmugan daude eta norbera bere kalkuluak eginez dabil aspaldidanik. Beraz, ezer berririk ez.**

**Egoera ekonomikoarekin lotura zuzena duten gaien artean, bestalde, nonbait langileon soldatak omen dira ematen ari den hazkunde txikiagoren errudunak. Patronalek darabilten betiko errezetak eta aitzakiak dira. Hamalau urtetako hazkunde ekonomiko etengabean, langileon soldatak KPIren inguruko dantza lotuan ibili dira, ugazaben berekoikeriaren erakusgarri. Eta hazkundearen moteltzea datorrenean soldatak bere horretan eustea omen da soluziobidea. Eskarmentu ederra dugu honezkero eta negoziazio kolektiboaren bitartez geurea aldarrikatzen jarraituko dugu, indarberrituz. Beraz, ezer berririk ez.**

**Elkarrizketa sozialaren ondorio berriak iragartzen dira Madrildik datozkigun berrietan. Halako bakoitzean langileon kaltetan suertatzen dira neurria guztiak. Bitartean prekarietateak gora egiten du etengabe, bereziki emakumezkoak eta gazteak etorkinekin batera zigortzen dituelarik. Honetan ere ezer berririk ez.**

**Sindikatuak azaroan egingo den hamabigarren kongresurako deialdia luzatua du. Hor bai, sindikatua indarberritzeko konpromiso berriak eta militante berriak ere.**

langile 12.ekin kongresua

## Adolfo Muñoz, candidato a la secretaría general

# "VAMOS A PRIMAR LA ACCIÓN SINDICAL Y NUESTRO COMPROMISO SOCIAL Y POLÍTICO"

**Adolfo Muñoz, candidato a la secretaría general, analiza la coyuntura actual en un inicio de curso marcado por los preparativos del Congreso, la desaceleración económica y los conflictos de larga duración.**



**-Tras la tregua del verano, el inicio de curso, en el plano económico, está marcado por la crisis que viene o ya está y las recetas de siempre para combatirla. ¿Qué diagnóstico hace ELA del momento actual y de todo lo que se está diciendo y haciendo?**

-Hemos vivido un periodo de catorce años con una acumulación de capital sin precedentes. Ha sido un crecimiento sin reparto; al contrario, con un reparto más injusto de la riqueza. La patronal ha extendido la precariedad como le ha venido en gana, y los gobiernos han hecho política para beneficiar exclusivamente la posición patronal, comportándose como sucursales de intereses empresariales. El fácil recurso a la precariedad ha incrementado la explotación y la cuenta de resultados de las empresas. Beneficios, que en muchos casos, han sido destinados a operaciones especulativas.

Es innegable que este año la economía se ha desacelerado. Ha habido causas externas, como la especulación financiera, la desregulación del capital y el monopolio de mercados estratégicos; y otras más internas, como el estallido de la burbuja inmobiliaria. Situaciones todas ellas, por otra parte, sabidas e incluso propiciadas por el poder político, que ha favorecido la acumulación de capital, negándose a intervenir.

Ahora parece evidente que quienes se han forrado en la fase de crecimiento pretenden, una vez más, culpar de cuanto sucede a los salarios, a la "rigidez" en la contratación, insistiendo en que hay que trabajar más horas.

Pues bien, ELA afirma que los salarios nada tienen que ver con las causas que han provocado esta situación y que la contratación es precaria ya en extremo. Nuestra respuesta, por tanto, va a ser defender los logros sindicales y activar la acción sindical para disputar el reparto de la riqueza. Los únicos responsables son los beneficios y su descontrolado comportamiento.

Sigue en la pag. 2

## Baionako prokuradoreak Euskal Herriko Laborantza Ganbara auzitara eramatea erabaki du; epaiketa irailaren 18rako deitu dute

# LABORANTZA GANBARAREN BIZIRAUPENA ARRISKUAN

**Begi bistakoa da Frantziako Estatuak ez duela inoiz gogoko izan Euskal Herriko Laborantza Ganbara (EHLG). Hamaika izan dira Iparraldeko laborariek EHLG Ainhize-Monjolosen sortu zutenetik Frantziaren eskutik jaso dituen oztopoak eta trabak. Orain, Baionako prokuradoreak urrats bat aurrera egin du, eta Laborantza Ganbara auzitara eramatea erabaki du. Epaiketa irailaren 18rako dago iragarrita, Baionan.**

Manu Robles-Arangiz Fundazioa Institutuak Iparraldean duen arduradun *Txetx* Etcheberryk azpimarratzen duenez epaiketak garrantzia handia du. "Asko dago jokoan: batetik derrigorrez bete beharko litzatekeen urtebeteko espetxe zigorra Laborantza Ganbarako presidente Mixel Berhokoirigoinentzat. Bestetik 15.000 eurotako isuna; zigor horri epaiketaren kostuak eta abar gehitu beharko litzaioke. Baina batez ere EHLGen disoluzioa dago jokoan. Hori da gakoa. Ez du zentzurik pentsatzeak Berhokoirigoin espetxeratuko dutenik edo isun bat jarriko diotenik eta era berean Laborantza Ganbarari bere ekimenarekin jarraitzen utziko zaiola. Laborantza Ganbara debekatu edo ez erabakiko da, finean".




3. orrialdean jarraitzen du



**-Siguiendo con recetas equivocadas, ¿podría haber una nueva reforma laboral?**

-Por desgracia, nadie descarta que en un futuro cercano no se vuelvan a plantear más reformas laborales. Ese ha sido el recurso de los sucesivos gobiernos: insistir en una relación laboral con menos derechos para los trabajadores/as.

**-Lo adelantabas antes, pero ¿de qué manera la desaceleración va a influir en la negociación colectiva?**

-Aquí se ha optado por un modelo de producción basado en la precariedad, que ha supuesto beneficios inmediatos y fáciles para el empresario. Ahora, cuando apunta una recesión, la patronal, con la inestimable ayuda de los Gobiernos, va a ir a contener salarios y a por más precariedad, más jornada...

Nuestro trabajo es socializar nuestra lectura de la situació y seguir con la línea estratégica de los últimos años. Los problemas de verdad (bajos salarios, precariedad, subcontratación, discriminaciones, abusos de jornada, salud laboral...) están ahí y nosotros estamos dispuestos a dar la cara por la gente que nos necesita. Lo que no podemos hacer es colaborar en el engaño a la clase trabajadora ni asumir el discurso neoliberal.

**-En esta coyuntura, más que nunca, cobra especial protagonismo la sección sindical.**

-Sin duda. Hablar de negociación colectiva es hablar de secciones sindicales organizadas, secciones Sindicales con militancia, con capacidad de tener su propia agenda de trabajo, sus objetivos, sus planes de trabajo...No hay negociación colectiva real sin organización.

**-¿Es posible o son buenas intenciones?**

-Las buenas intenciones, a un sindicato, se le suponen. Lo importante son los hechos, y a lo largo de 2008 hemos tenido ejemplos que demuestran que nuestro modelo sindical funciona, que la lucha organizada da frutos y que cuando hacemos las cosas bien la otra parte da marcha atrás en sus planteamientos. Tenemos muy reciente el caso de CIE, una empresa del metal de Legazpia, con más de 200 afiliados a ELA, que tras 9 días de huelga indefinida ha tenido que dar marcha atrás en sus intentos de aumentar la jornada y congelar los salarios.

Lo que es evidente es que tenemos que mejorar, tenemos que afiliar, tenemos que sindicalizar empresas y sectores. Tenemos que interiorizar que no hay negociación colectiva real sin afiliación, sin empresa sindicalizada.

**-ELA da el pistoletazo de salida a una nueva campaña de negociación colectiva el próximo 7 de octubre.**

-Así es. El próximo 7 de octubre se celebra a nivel mundial una jornada por el Trabajo decente, por el trabajo digno, convocada por la Confederación Sindical Mundial, y es la fecha que hemos elegido para dar inicio a nuestra campaña de negociación colectiva 2009 y presentar la resolución sobre negociación colectiva que se llevará al congreso.

**-Una de las características de la negociación colectiva de 2008 ha sido la duración de los conflictos, fundamentalmente en el sector sociosanitario.**

-Estamos viviendo conflictos muy largos en la residencia Faustino Orbegozo, Rehavital, Ariznavarra... por mencionar algunas. Son conflictos de mujeres, muchos de ellos. Y la conclusión que sacamos es que se han creado empleos pensados para mujeres, precarios y mal pagados y que en este tema, como en otros, son iguales PNV, UPN, PSOE y EA.

En el tema de Zumarraga, a EA, PNV y PSE les han estorbado los derechos de las mujeres y han decidido privatizar el geriátrico. En este sentido, ha sido especialmente decepcionante la postura y actitud de Eusko Alkartasuna, responsable de Bienestar Social, un partido que se denomina "socialdemócrata" que no ha dudado en pisotear las condiciones de estas mujeres.

En Alava, y ante el conflicto de Ariznavarra, el diputado general, Xabier Agirre, pretende lavarse las manos. Sin embargo, ELA entiende que la Diputación es la responsable última y principal del servicio. El conflicto durará, por tanto, lo que ellos quieran que dure, porque lo que se reclama es perfectamente factible, por eso se lucha.

Otro elemento que destacaría de la negociación en 2008 es la cada vez más clara ruptura de las reglas del juego, con una patronal que está experimentando toda clase de fórmulas para burlar los derechos colectivos y a los sindicatos. Un caso reciente es el de Tubacex, en el que la empresa ha provocado la adhesión individual de los trabajadores/as para eludir la negociación colectiva. En todo ésto hay un componente experimental de la patronal del que es obligado sacar consecuencias.

**-Hemos hablado largo y tendido de la patronal privada, pero la pública no le va a la zaga.**

-A modo de ejemplo muy significativo, la característica fundamental del gobierno de Gasteiz es su beligerancia contra el sindicalismo vasco. Han roto las reglas del juego, de tal manera que si la mayoría sindical no está de acuerdo con algo dan plena normalidad y legitimidad a la minoría sindical, sin importarles que ésta sea feroz guardián del centralismo. Evidentemente esa opción antidemocrática tiene consecuencias con ELA.

Por otra parte, vivimos, sufrimos, un sistema institucional en absoluto participativo. Todo se hace a espaldas de las organizaciones sociales y de la ciudadanía: las reformas fiscales, sin ir más lejos.

Sobre los órganos de participación social, como el CES, que hemos abandonado antes del verano, la conclusión que sacamos es que a la patronal, en la medida en que obtiene lo que quiere directamente del gobierno, no le interesa que tengan contenido.

*"Hamalau urtez inoiz ezagutu gabeko kapital metaketa bizi izan dugu, baina hazkunde hori ez da banatu, aberastasunaren zatiketa bidegabea eraginez"*

*"Hazkunde garaian patrikak etengabe bete dituzten horiek soldatei leporatzen diete hazkundearen moteltzea, soldatek inolako errurik ez dutenean"*

*"Gobernuek orain arte izan dituzten politikekin jarraitu nahi dute, langileen eskubideak gutxitu eta lan baldintzak okertzen dituzten neurriak hartuz"*

Porque, otra constante de este gobierno es que no tiene ningún interés en enfrentarse a la patronal; el ejecutivo vasco es una sucursal de intereses empresariales. Basta mirar lo que sucede en salud laboral.

**-El 26 y 27 de noviembre ELA celebra su XII Congreso confederal. ¿Cómo va la organización del mismo?**

-Los congresistas ya tienen la ponencia en sus manos; estamos en pleno debate, en plena fase de elaboración de enmiendas cuyo objetivo es mejorar y enriquecer el texto original. Está previsto que unos 3000 delegados y delegadas y militantes de la organización participen en la discusión y socialización de la misma.

En el XII Congreso de ELA vamos a marcar las líneas estratégicas para los próximos años y podemos adelantar que vamos a seguir primando la acción sindical y nuestro compromiso social y político.

## INDARRAK BATZEA, AUKERA BAKARRA

**-Ezin dugu egoeraren azterketa hau amaitu Ibarretxek deitutako kontsultaren inguruan gertatutakoa aipatu gabe. Zein balorazio egiten duzu egungo egoera politikoaren inguruan?**

-Kontsultak aurreikusten zen ibilbidea izan du. ELAri ez dio harritu ez Madrilen jarrera (Epaitegi Konstituzionalaren sententzia) ez eta euskal erakundeen erantzuna. Bazeuden aurrekariak, porrot egin zuen Estatutu Politiko Berrirako proposamena edo eskumenak aldebakarki hartzeko iragarpena esaterako, inora heldu ez diren 'mehatxuak'. Ibarretxeren diseinua 'hasierara itzultzea' da. Lehendakariak berak jakin bazekien bere proposamenak ez zuela aurrera jarraitzeko inolako aukerarik, ez Zapaterorekin ez eta bere epaitegiekin.

Kontsulta -Estatutu Politiko Berrirako proposamena izan zen legez- erakundeetako buruzagitza soila duen proposamena da, gizartea eta bere erakundeek inolako zereginik izan ez zezaten pentsatutako egitasmoa izan delarik.

**-ELAk Jaurlaritzaren jardueraren koherentzia eza larria salatu du askotan…**

-Koherentzia eza eta ardura falta ere. Erakundeen ospearen galtze nabarmena gertatzen ari da, eta larriena dena: ikusten dugu, beste behin, gobernuaren jarduna hedabideetan agertzearren egina dagoela dirudiela. Kanpora begirako itxurakeriak politika ordezkatu du, zoritxarrez.

Egoera politikoaren azken azterketa egin genuenean ondorioztatu genuen PSOEk ez zuela ematen gatazka politikoa bide demokratikoetatik konpontzeko. Ez da ahaztu behar PSOEk PPrekin duen Estatu ituna, epaileen kontseiluko azken karguen banakatan ikusi den legez. Nafarroan gertatutakoa, Kataluniako afera… aztertu besterik ez dago. Indar abertzaleak diagnostiko hau kontutan hartu beharko genuke eta horren arabera jokatu.

**-Zein da irtenbidea ELArentzat?**

-Indar soberanisten indar metaketa ez da soilik zilegia, aukera bakarra da. Borroka demokratikorik gabe gatazka politika erretorika hutsa da. Hala ere, Gasteizko gobernuaren planteamendua honen beste muturrean dago. Erakundeen arteko erabateko normaltasuna ez da bateragarria Madrildik jasotzen diren mespretxu sistematikoekin. Eta Gasteizek erakundeen arteko normaltasunean bizi nahi du.

## ELA participó en el III Foro Social Mundial sobre las Migraciones

# "LOS PROBLEMAS DE LAS PERSONAS EMIGRANTES EN EUSKAL HERRIA SON SIMILARES A LOS DEL RESTO DE LA UE"




**Una delegación de ELA participó del 11 al 13 en el Foro Social Mundial de las Migraciones celebrado en Madrid bajo el lema *Nuestras voces, nuestros derechos, por un mundo sin muro*. El objetivo del foro fue consolidar las redes de trabajo y de lucha entre las distintas organizaciones sociales.**

Más de 3.000 delegados y delegadas tomaron parte en el mayor debate mundial sobre las migraciones. La idea de celebrar el Foro Social Mundial de las Migraciones surgió en Porto Alegre en el 2005, como foro de debate y reflexión de las organizaciones sociales.

Emérita Cuellar, responsable de inmigración de ELA, fue una de las personas que intervino en el foro. Cuellar destacó en su intervención que "los problemas de las personas emigrantes en Euskal Herria son similares a los del resto de la Unión Europea". En este sentido señaló que "la principal barrera es la muy modificada Ley de Extranjería que impide a muchas personas inmigrantes acceder a derechos básicos, como son: papeles, trabajo reglado, vivienda, participación política, entre otras".

De acuerdo con los datos aportados por ELA, en enero de 2008, el censo global de los inmigrantes representa el 5,4% en la CAPV y el 10,4% en Navarra. "Ambos porcentajes son inferiores en relación a otras regiones de nuestro entorno, lo que en teoría esto tendría que permitir a la población inmigrante más oportunidades y mejores condiciones sociolaborales. En la práctica está muy lejos de ser así".

Las barreras jurídicas y sociales planteadas por los gobiernos a las personas inmigrantes fue otro de los temas que se analizó en el foro. Emérita Cuellar subrayó que "estas barreras han propiciado que la patronal se aproveche de esta coyuntura, y a día de hoy muchas empresas sólo ofrecen trabajo precario. Esto conlleva a la explotación. La precariedad laboral afecta más a las mujeres y el tener papeles no es garantía para lograr un trabajo en buenas condiciones. Es evidente que las mujeres lo tienen más difícil, en especial, porque el único pasaporte a la integración es un contrato de trabajo, y éstas en general sólo tienen opciones laborales en los sectores con más precariedad, sector servicios, o bien, como empleadas de hogar".

En este contexto, Cuellar criticó las recientes declaraciones del ministro de trabajo Corbacho sobre la contratación de inmigrantes en origen, ya que "al poner en relación inmigración y empleo, una vez más se está utilizando a las personas inmigrantes como mano de obra pura y dura. Sólo interesan en tanto que sean mano de obra barata".

*"Euskal Herrian bizi diren etorkinek Europar Batasuneko beste herrialdeetan bizi diren etorkinen antzeko arazoak dituzte"*

## ELAK ORDEZKARITZA ZABALA BIDALIKO DU EUROPAKO FORO SOZIALERA

Irailaren 17tik 21era Europako Foro Soziala izango da Suediako Malmoe hirian. Bost egunez Malmoe bestelako Europa bat posible uste duten ehunka erakunde eta gizarte eragileen bilgune izango da. Guztira 20.000 lagunetik gora biltzea espero da, eta 200 tailer prestatu dira. ELAk ordezkaritza zabala bidaliko du Suediara: Jose Elorrieta idazkari nagusia, Manu Robles-Arangiz Fundazioa Institutuko Iparraldeko arduradun Txetx Etcheberri, formazio departamenduko kide Xabi Anza, nazioarteko departamenduko kide Saioa Igeregi, gizarte politiken arduradun Mikel Noval eta azterketa bulegoko kide Julene Gabiola.

---

Etcheberryk argi utzi nahi du ez dela Laborantza Ganbararen ekimena epaitzen, ez zaiola inolako delituri leporatzen. "Bere izaera epaitzen da. Suprefetak erakunde ofizial baten izena baliatu nahi izana leporatzen dio, eta bere eginkizunaren ondorioz Paueko Ganbararen jarduna bete nahi izatea. Bere ekinbidearengatik epaitzen da, ea bere deituragatik EHLGk Paueko Ganbararen zeregina betetzen duen ala ez".

Euskal Herriko Laborantza Ganbaratik eta Euskal Herriko Laborantza Ganbarako Lagunak elkarteetatik epaiketa atzeratzea eskatzen dute. "Ez da egon defentsa duin bat prestatzeko denborarik. Legezko erakunde baten bizitza edo heriotza dago jokoan, eta hori oso serioa da. Denborarik ere ez dute utzi defentsa prestatzeko. Gainera, kontutan izan behar dugu jurisprudentzia sortuko duela epaia honek. Horregatik irailaren 18ko epaiketa atzeratzea eskatuko dugu".

### "EHLG-K HERRITARREN SUSTENGUA DU"

Etcheberryren ustez ezin da epaiketa ulertu atzetik dituen konnotazio politikoak kontutan izan gabe. "EHLGk nekazaritza ganbara espezifiko bat eskatzen du Ipar Euskal Herriarentzat, egun Frantzian inolako ofizialtasunik ez duen herrialdea. Frantziako Estatuaren jarrera ikaragarri gogorra da. Kontutan izan behar dugu herritarren gehiengoak EHLG sustengatzen duela. Horren lekuko argia da Euskal Laborarien Biltzarra sindikatuak azken hauteskundeetan nekazarien gehiengoaren sostengua jaso zuela. Edo, Ipar Euskal Herriko 159 udal-herrietatik 110ek Laborantza Ganbara sustengatzeko agiria sinatu zutela. Euskal Herriko Laborantza Ganbaran mota guztietako ideologiak biltzen dira: abertzaleak daude, Frantziako Alderdi Sozialistakoak, Berdeak, sindikatu ezberdinetako lagunak, Frantziako eskuineko lagunak, kontsumitzaileen defentsarako elkarteetako kideak, ekologistak… Ba erakunde horri talde klandestino baten izaera eman diote. Epaiketa urrats berri bat da Frantziako jarrera beligerantean. Ikusi dute EHLG erakunde demokratiko eta garden bat dela, indarkeria erabiltzen ez duena. Eta orain hori debekatu nahi dute; oso larria da. Orain arte Estatuak erabiltzen zituen errepresio tresnak gogortu egin dira. Zergatik? Euskal Herriko Laborantza Ganbararen eskakizunen izaera instituzionalengatik. Ikusten dute ez dela afera kultural bat, nolabait esatearren".

### MOBILIZAZIOETAN PARTE HARTZEKO DEIA

Etcheberryk gizartea mobilizatzearen beharra azpimarratzen du. "Ezinbestekoa da mobilizatzea, ez soilik laborariak, gizarte osoa baizik. Egoera oso larria da. Ezin da bortizkeria erabiltzen ez duen elkarte garden eta demokratiko bat debekatu, ez du ez hanka ez buru. Hegoaldeko lagunei ere mobilizazioetan parte hartzek deia luzatu nahi diegu. Jendea oso haserre dago Suprefetak hartu duen erabakiarekin. Lagun askok galdetzen du ea zergatik jo duen Laborantza Ganbararen aurka. Ez al daude mila arazo larriago afera hau baino? Zergatik horrenbeste diru eta energia xahutu Estatuaren aldetik gai honen inguruan? Zergatik nahi da EHLG desagerrarazi?".

Nekazariek gurean eta mundu zabalean bizi duten egoera larria ere aintzat hartu behar dela dio Etcheberryk. "Garai txarrak dira nekazarientzat eta ekologiarentzat, arazo ugariri aurre egin behar zaie. Eta arazo larri horiei guztiei aurre egiten dien ekimena da EHLG".

*El juicio contra Euskal Herriko Laborantza Ganbara tiene una gran importancia; lo que está en juego es su disolución, si sigue vivo o le condenan a morir*

*No se juzga una actividad, no se les acusa de ningún delito; lo que se juzga es la propia naturaleza de EHLG*

astekaria

## Zerbitzu juridikoen eta euskara arduradun Leire Txakartegi Erabiltzaileen Hizkuntza Eskubideei buruzko dekretuaz mintzo da

# "EZ DA NAHIKOA"



**Jaurlaritzak Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Hizkuntza Eskubideei buruzko dekretua onartu zuen uztailean. Dekretuak Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuaren 37. artikulua garatzen du, eta kontsumitzaile eta erabiltzaileei hainbat eskubide aitortzen dizkie. Esaterako herritarrek ondasun eta zerbitzuei buruzko informazioa euskaraz eta gaztelaniaz jaso ahal izango dute, eta enpresa eta saltokiekiko harremanetan hizkuntza ofizialetako edozein erabili ahal izango da, betiere eskubide hori gauzatzeko aukera araudian ezarriko den progresibitateaz izango bada ere. Leire Txakartegi, ELAko zerbitzu juridikoen eta euskara arduraduna, dekretuaren inguruan mintzo da.**

**-Zein balorazio egiten du ELAk dekretuaren inguruan?**

-Hainbat arlotan aurrerapauso bat da, baina, era berean, gabeziak ditu. Lehenengo aldiz hizkuntza-eskubideak esparru pribatuan arautzen dira, eta positiboa da. Hainbat lagunek aipatu dutenez enpresei konpondu ezineko arazoak eragingo dizkie dekretuak, baina hori esatea demagogikoa da. Auzi honi ekiterakoan aski adostasun ez dagoela ere aipatzen du baten batek. Baina dekretuaren helburua oinarrizko eskubide batzuk, hizkuntza-eskubideak, bermatzea da. Beraz, adostasun edo akordio zabalagoak eskatzeagatik ezin da gertatu erabiltzaile euskaldunen hizkuntza-eskubideak mugatu edo baldintzatzea.

**-Gabeziak ere badituela diozu. Zeintzuk nabarmenduko zenituzke?**

-Legea soilik esparru murritzean izango du eragina. Negozio-bolumen handiko establezimenduei eragiten die soilik, betiere publikoari saltzeko 400 metro koadrotik gora dutenean. Bestalde dekretuak soilik du eragina Bilbo, Gasteiz edo Donostian edo herritar elebidunen kopurua %33tik gorakoa den herrietan. Hau da, herri ugari dekretutik kanpo gelditzen dira, ez delako zehazten zein herrik gainditzen duen kopuru hori.

Hizkuntza-betebeharrak garatzerakoan progresibitatea irizpide egokia dela uste dugu, baina ez da beharrezko progresibitatea daukan eta kontsumo hartu-eman guztiak jasoko dituen egutegi bat erabaki. Egutegi bat finkatzeak ekarriko luke legean ezarritako betebeharrak erabat garatzea. Hau da, dekretuak hausteak ez dauka inolako zigorrik. Aipatutako legearen aipamen orokor bat egiten da, baina gure ustez hau ez da oinarri juridiko nahikoa zigorrak ezartzeko.

**-Beraz, argi-ilunak ikusten dizkiozu dekretuari.**

-Dekretuak urratzen duen bidea guztiz beharrezko ikusten dugu, herritarren hizkuntza-eskubideak esparru pribatuan bermatzerakoan. Halere, progresibitatea aintzat hartuko duen egutegirik gabe eta arau-hauste zein zigorren atala garatu ezean ezin izango da betebetean gauzatu. Hizkuntza-politika batentzat ezinbestekoa da hizkuntza-eskubideekiko betebeharrak aintzat ez hartzea arau-hauste gisa jotzea.

> *"El decreto supone un paso adelante; es la primera vez que se regulan los derechos lingüísticos en el ámbito privado, pero no es suficiente"*

## Labur Breves

### Empresa akordioa Arcelor taldeko Industrias Zarran

Akordioak hiru urteko iraupena izango du. 2007rako 1.500 euro+%4,80ko soldata igoera jasotzen du, 2008rako 750 euro eta KPI+%0,60koa eta 2010erako KPI+%0,60. Lan ordutegia Bizkaiko lan hitzarmenaren azpitik 16 ordutan murriztuko da. ELAren esanetan honelako akordioek agerian uzten dute duela hilabete batzuk UGT eta CCOO sindikatuek Bizkaiko patronalarekin lortutako akordio sektoriala. Izan ere gero eta gehiago dira enpresa mailan hitzarmenak negoziatzen dituzten enpresak.

### Huelga de los jardineros del Ayuntamiento de Basauri

El personal de la contrata municipal de jardinería de Basauri, perteneciente a la empresa Urazca, lleva a cabo paros parciales desde hace cuatro meses, en defensa del convenio colectivo. Ante la negativa de la dirección de la empresa a mejorar los salarios, que son de 900 euros mensuales, han decidido ampliar la huelga a toda la jornada, a partir del mes de setiembre. Asimismo critican la actitud del Ayuntamiento de Basauri, que durante estos meses no ha mostrado ningún interés por la situación laboral de este colectivo.

### Más paros en la Residencia Ariznavarra

Las trabajadoras de la Residencia Ariznavarra de Gasteiz, que desde el pasado 18 de febrero protagonizan dos horas y media de paro en cada turno, tienen previsto incrementar las horas de paro tras la última oferta de la dirección de la empresa MAFRE-Quavitae, adjudicataria de la gestión de la residencia. Mientras que la Diputación de Alava ha incrementado en un 40% la subvención por plaza y día a la empresa gestora, ésta ha planteado un incremento salarial del IPC a las trabajadoras, lo que ha sido recibido como una provocación. Además, la dirección de la empresa aplicó en la nómina del mes de julio los conceptos retributivos recogidos en el convenio estatal, abriendo las puertas a la doble escala salarial para futuras contrataciones.

### Una decisión contra el derecho a manifestarse

ELA rechaza la decisión del Departamento de Interior del Gobierno Vasco de prohibir la manifestación convocada para el día 14 en Donostia. Considera que esta decisión supone una restricción de libertades y en concreto del derecho a manifestarse libremente. ELA quiere denunciar nuevamente la gravísima e inaceptable situación de los presos y presas políticas vascas, muy en especial la de quienes por enfermedad deberían haber sido puestos ya en libertad.

**www.ela-sindikatua.org**

ELA astekaria

Barrainkua 13, Bilbao
Tel. 94 403 77 00
Fax 94 403 77 66

Dep. legal BI-199-00

www.ela-sindikatua.org

Franqueo concertado
nº 08/207